



PRENTSA OHARRA/ NOTA DE PRENSA

## **GAZTEEI ZUZENDUTAKO INDARKERIA SEXISTAREN PREBENTZIO KANPAINAREN EPIZENTROA BIHURTUKO DA BASAURI BELDUR BARIK TOPAKETAREN BITARTEZ**

- Emakundek eta EUDELeK bultzatuta eta erakunde guztien laguntzarekin burututako programak bere amaiera jaia egingo du azaroaren 30an herri honetan
- 150 ikus-entzunezko lan aurkeztu dira Beldur Barik lehiaketara eta hauetan gazteek erakusten dute nola egiten dioten aurre berdintasun ezari errespetuan, berdintasunean eta askatasunean oinarritutako jarrerekin
- Emakumeen kontrako kasuen %35a 30 urte arteko emakumeen jasaten dituzte, 2013ko lehen sei hilabetetako azken datuen arabera
- Azaroaren 25ari begira, Nazioarteko Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurkako egunari, erakunde guztiek puntu lila erabiltzeko deia egin dute indarkeria mota honen aurkako sinbolo bezala

### **Basauri, 2013ko azaroaren 20an**

Beldur Barik! programa urtero egiten da gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko asmoarekin. 2009an sortu zen Emakunde eta Eudelek bultzatuta berdintasunaren aldeko euskal udalen Berdinsarea sarearen barruan. Gaur egun, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesari eta diru-laguntza du programak, eta beste erakunde batzuen laguntza: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) eta EITB.





## PRENTSA OHARRA/ NOTA DE PRENSA

Basaurin datorren azaroaren 30ean ospatuko den Beldur Barik Topaketak emango dio amaiera aurten programa honetan gazteekin egin den lanari. Topaketa honetan Beldur Barik ikus-entzunezko lehiaketaren sari banaketa egingo da . Beldur Barik! lehiaketa gazteei zuzendua dago (12 eta 26 urte bitartekoak). Neska eta mutilek emakumeen kontrako diskriminazioak ikustaratzen dituzten adierazpen artistikoak saritzea eta bultzatzea da honen helburua. Lanek errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren kontrako konpromiso sendoan oinarritutako jarrerak ikustarazi behar dituzte.

Edizio honetan 150 lan jaso dira, 12 eta 17 urte bitarteko gazteek egindakoak, eta 18 eta 26 urte bitarteko gazteek egindakoak. Kategoria bakoitzean 500 euroko lehen sari bana, eta 250 euroko bi bigarren sari banatuko dira. Honez gain, 300 euroko herriaren saria emango da. Honekin batera, aipatzekoa da zenbait udaletan lehiaketa lokalak ere antolatu direla aldi berean.

Aurkeztu diren lanen artean aipagarria da gazteek egindako bideoen edukiak gutxiago zentratzen direla indarkerian, eta gehiago lantzen dituztela indarkeria hori sortarazten dituzten jarrerak. Eta hori da hain zuzen ere, lehiaketa honekin sortu nahi den hausnarketa gazteen artean.

### **Basauri, Beldur Barik Herria**

Sarituak nortzuk diren azaroaren 30ean emango da jakitera Basaurin egingo den Beldur Barik Topaketan. Bertan, jai giroan eztabaidak, prestakuntza tailerrak eta zenbait ekintza egingo dira.

Dohaineko autobus zerbitzua antolatuko da gazteek Basaurira joan ahal izateko.





## PRENTSA OHARRA/ NOTA DE PRENSA

Hau da Topaketaren programa:

- 16:00 – 16:30 Ongi etorri, autobusak Marieneara heltzen dira
- 16,30 – 17:00 Kapritxosas-ekin Marieneara bisita
- 17:00 - 19,30- Tailerrak (sexualitatea, autodefentsa feminista, Feminismoa, klown)
- 19,30 – 20:00 Kalejira
- 20:00 – 20:30 Lunch
- 20:30 a 22:15 Sari banaketa. Lanak ikustea. Clownclusiones ikuskizuna.
- 22:15 Ibaiganetik autobusen irteera.

Informazio gehiago: [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)

### **Indarkeria gazteen artean, datuak**

Beldur Barik bultzatzen duten erakunde guztiak bat datoz indarkeria gazteen artean prebenitzeko beharraz, izan ere, datuek erakusten baitute azkenaldian 18 urtetik beherakoen artean gora egin dutela nabarmen indarkeria kasuak, bereziki askatasun sexualaren kontrakoak.

2013ko urtarrila eta ekaina bitartean EAEn genero indarkeriaren biktimen kopurua 2.421koa izan da. Hauetatik, 186 (%7,6) 18 urte beherakoen arteko kasuak izan dira, eta 677 (%27,9) 18 eta 30 urte bitartekoen artean eman dira. Beraz, esan daiteke kasu guztien %35,5a 30 urte arteko emakumeen artean ematen dela.





## PRENTSA OHARRA/ NOTA DE PRENSA

### **Puntu lila**

Beldur Barik bultzatzen duten erakunde guztiek, bestetik, azaroaren 25ko Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunarekin bat eginik, dei bat luzatu nahi diete hiritar guztiei, egun horretan puntu lila erabili dezaten mota honetako indarkeriaren kontrako sinbolo moduan. Sinbolo hau publikoki erakusteak berarekin dakar emakume eta gizonen arteko berdintasun eza oinarri duen era honetako indarkeriaren kontrako konpromiso aktiboa.

Emakundeko prentsa bulegoa. 945-016721 [emakunde.prensa@ej-gv.es](mailto:emakunde.prensa@ej-gv.es)

